# ALDERDI BERRIAK

EAJ PNV

www.eaj-pnv.com

2006ko APIRILA • 6.zenbakia



EUSKAL y VASCA

## EUSKADI GELDITU EZ DADIN

## PARA QUE EUSKADI NO SE DETENGA

# ALDERDI BERRIAK

2006ko APIRILA

KOORDINATZAILEA
COORDINADOR
Jose Unzueta

ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri “Amatiño”
Saioa Zubizarreta
Iñaki Bernardo

ARGAZKIAK
FOTOGRAFIAS
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa
Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia

DIAGRAMAZIOA
DIAGRAMACION
EAJren Multimedia Departamendua

**ALDERDI BERRIAK** es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

**ALDERDI BERRIAK** Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendariak argitara emandako aldizkari hiruhilabetekaria da.

## AURKIBIDEA
## SUMARIO













SARRERA 03

UDABERRI, UDALBIDE, UDALBILTZA 04

GALINDEZ, IKURRA 06

LA "Y" VASCA, UNA INFRAESTRUCTURA FUNDAMENTAL PARA EL DESARROLLO Y LA MODERNIZACION DE EUSKADI 07

LA CAUSA DEL PUEBLO VASCO (50. URTEURRENA) 11

TRIBUNA GALEUSCAT: PARA PENSAR OTRO FUTURO 12

ALDERDIA PERTSONEN ZERBITZURA 14

# SARRERA

El pasado 10 de octubre de 2005 el Euzkadi Buru Batzar aprobó por unanimidad la Iniciativa **Elkarbizitzarako Bake bidea**. **Ante el final dialogado de la violencia y la normalización política.** EAJ-PNV fue el primer partido en concretar su posición al respecto.

Como clave de solución para que la decisión de la sociedad vasca sea respetada, la iniciativa de EAJ-PNV proponía ya hace ya medio año la asunción de un doble compromiso: **No imponer y no impedir.**

■ No imponer un acuerdo de menor aceptación que los actualmente vigentes, y

■ No impedir un acuerdo de mayor aceptación que los actualmente vigentes.

El compromiso de **no imponer** limita la legítima mayoría nacionalista en el Parlamento Vasco y nos obliga a acordar entre mayorías superiores a las que apoyamos en 1979 el Estatuto de Gernika. Mientras que el compromiso de **no impedir** limita la mayoría conjunta entre el PSOE y del PP en el Congreso de los Diputados.

En definitiva, la solución pasa por lograr mayorías integradoras en Gasteiz e Iruñea, y evitar que se produzcan vetos en Madrid.

Y todo ello, por supuesto, en ausencia de violencia, amenaza o extorsión y sin exclusión de ninguna formación política.

Euzkadi Buru Batzarrak 2005eko urriaren 10ean onartu zuen aho batez **Elkarbizitzarako Bake Bidea**. **Bortizkeriaren bukaera elkarrizketatuaren eta normalizazio politikoaren aurrean** deritzan Ekimena. Euzko Alderdi Jeltzalea izan zen lehena bere jarrera jendaurrean adierazten.

Euskal gizartearen erabakia kontuan hartua izan dadin, eta konponbidearen giltzarri modura, honez gero urte t´erdi da Euzko Alderdi Jeltzaleak honako konpromiso bikoitz hau proposatu zuela: **Ez derrigortu** eta **ez eragotzi**.

■ **Ez derrigortu** orain arteko itunek duten baino onarpen gutxiagoko akordiorik.

■ **Ez eragotzi** orain arteko itunek duten baino onarpen gehiagoko akordiorik.

**Ez derrigortzeаren** konpromisoak Eusko Legebiltzarraren gehiengo abertzalea mugatzen du eta 1979an Gernikako Estatutua babesteko orduan bildu zirenenak baino gehiengo zabalagoak lortu beharra eskatzen du. **Ez eragozteko** konpromisoak, berriz, PSOE eta PPren arteko gehiengoa mugatzen du Diputatuen Kongresuan.

Laburbilduz, konponbidea etorriko da Gasteizen zein Iruñean gehiengo integratzaileak lortu beharretik eta Madrilen betorik eza segurtatzetik.

Eta hau guztia, jakina, indarkeriarik, mehatxurik eta estortsiorik ezean, eta parte hartu nahi lukeen ezein indar politikorik kanpoan uzteke.



Sabin Etxeko Ikurriña

# UDABERRI, UDALBIDE, UDALBILTZA




Ibarretxek Durangon burutu zen Udalbideren Biltzarrari amaiera eman zion

**En septiembre de 1999, testigos de un momento político peculiar, asistimos a la creación de UDALBILTZA por parte de los cargos electos municipales de la izquierda abertzale vigente en aquella coyuntura política, de EA y de EAJ-PNV, como expresión de la integridad nacional de Euskal Herria y la colaboración entre los distintos territorios que conforman nuestra nación.**

Mucho ha llovido desde entonces. El retorno de la violencia de ETA, la falta de respuestas por parte de la izquierda abertzale, la división en el seno de Udalbiltza, los recursos interpuestos por el Estado y por los partidos que se consideran no nacionalistas, el recurso interpuesto en 2005 por el Tribunal Supremo del Estado Español contra los objetivos y actividades de UDALBIDE, incluida la construcción nacional de Euskal Herria, etc.

Mientras tanto, hemos sido capaces de articular el mecanismo adecuado para la consecución de los objetivos de Udalbiltza: La asociación Udalbide Elkarlan elkartea. Destaca entre sus objetivos salvaguardar y promocionar los rasgos que hacen que nuestro país sea un país: potenciar el euskera en las zonas donde su presencia es minoritaria, promocionar las relaciones interterritoriales e impulsar iniciativas para el conjunto de Euskal Herria. De esta manera, Udalbide se convertiría en un proyecto de solidaridad entre los territorios de nuestro país.

**1999ko irailean, momentu politiko berezi hartatik abiatuta, orduko ezker abertzaleak, EAk eta EAJren lurralde guztietako udal hautetsiek UDALBILTZA euskal erakunde nazionala sortu genuen, Euskal Herria lurralde oso bat zenaren adierazgarri eta euskal lurraldeen arteko harremana eta elkarlana bultzatzeko tresna.**

Ordutik honako bidean hamaika kontu. ETAren bortxakeriaren itzulera, ezker abertzalearen erantzun falta, Udalbiltzaren zatiketa, Estatuak eta bere burua euskal abertzaletzat ez dutenek jarritako helegiteak, 2005ean Espainiako Auzitegi Gorenak, UDALBIDEren helburu eta ekintzen aurka, nazio eraikuntza barne.

Tartean, Udalbiltzako helburuak burutzeko tresna sortu genuen: Udalbide Elkarlan elkartea. Bere helburuak, herri bat herri egiten duten ezaugarriak gorde eta bultzatzea: euskara ahulen dagoen lurraldetan, euskal nortasuna eta kultura, lurraldeen arteko harremanak, Euskal Herri osorako ekimenak. Hala, Udalbide, Euskal Herriko lurralde arteko elkartasun egitasmoa bihurtuko zen.

2004ean elkartearen egitasmo nagusia egin genuen. Mugaren alde bitan eta hiru eremu administratibotan zatituta dagoen herria sendotzea du helburu. Iparraldean ere euskarak etorkizuna izan dezan, biharko Europan gure lekua aurki dezagun, herria



Dirigentes políticos estuvieron presentes en la IV Asamblea de Udalbide

En 2004 desarrollamos el proyecto esencial de la asociación. Su objetivo es el fortalecimiento de un país dividido en tres esferas administrativas a ambos lados de la frontera. Que el euskera pueda tener un futuro en Iparralde, que podamos encontrar nuestro lugar en la Europa del mañana y que podamos fortalecer los rasgos que hacen que nuestro país sea un país. Nos corresponde asimismo fortalecer los proyectos locales que desarrollen la condición vasca tanto en Ziburu como en Artajona. Por tanto, son miembros de nuestra asociación, en Iparralde, la federación de ikastolas SEASKA, la Cámara Agraria o Ikas-bi, y en Navarra, las ikastolas de la Ribera, Irujo Etxea o Euskara Kultur Elkargoa.

Estamos difundiendo la señal de EITB a todo el territorio de Navarra y de Iparralde, vamos a proceder a publicar las obras del historiador y vascófilo navarro Jimeno Jurio (obras que no va a publicar el Gobierno de Navarra); por otra parte, pondremos en marcha un grupo de monitores para jóvenes de todos los territorios, incentivaremos una campaña de matriculación en euskera para los escolares de Navarra.

Asimismo, la labor de Udalbide consiste también en la concienciación de los euskaldunes, en orden a garantizar la supervivencia de nuestra cultura milenaria y preservar en todos los territorios el legado que hemos conservado generación tras generación. Es necesario hacer reflexionar a nuestros descendientes acerca de la importancia de conservar el euskera, patrimonio de Euskal Herria y principal rasgo de nuestra identidad vasca. Es fundamental crear esa conciencia en muchos lugares de nuestro país.

Por último, el alma de Udalbide son los municipios. Por ello, resulta indispensable su apoyo y su interés en este proyecto. Estamos construyendo nación, como acostumbramos los vascos, poco a poco, sin estridencias, de arriba a abajo, en el respeto mutuo. Conociéndonos mutuamente, apoyándonos mutuamente, construyendo nuestro país.

Son miembros activos de Udalbide por parte del Partido Nacionalista Vasco Julian Eizmendi (alcalde de Azpeitiaa), Mikel Astelarra (ex-alcalde de Muxika), Xabier Alberdi (alcalde de Markina), Bixente Arozena (alcalde de Arantza), Mª Eugenia Arrizabalaga (alcaldesa de Zumaia), Ramuntxo Camblong (electo de Angelu y presidente del IBB), Igor Duñabeitia (alcalde de Forua) Laura Igantzi (concejal de Lesaka), Valeriano Tena (concejal de Vitoria-Gasteiz) José Antonio Torrontegui (alcalde de Mungia) Peio Iparragirre (concejal de Agurain). El director de la institución es el navarro Jose Luis Mendoza.

herri egiten duten ezaugarriak sendotzea. Gizarteko mugimendu eta tokian tokiko elkarte eta lagunak oinarritzat hartuz, haien proiektuak ahalbideratzea ere bada gure lana. Ziburun zein Artajonan euskaltasuna landuko duten bertako egitasmoak indartzea, bertako indarra sendotzea. Horrela, kide ditugu Iparraldean SEHASKA, Laborantza Ganbara edo Ikas-bi eta Nafarroan Erriberako Ikastolak, Irujo Etxea zein Euskara Kultur Elkargoa.

Geure proiektuen aldetik, Nafarroa osora eta Iparraldera EITBko seinalea zabaltzen ari gara, Nafarroako gobernuak argitaratuko ez zituen Jimeno Jurio, historialari nafar euskalzale bikainaren lanen argitaratzea, lurralde guzietako gazte begirale taldea abiaraztea, Nafarroako umeak euskaraz matrikula daitezen kanpaina egitea edota euskal udalerrien artean senidetzak bultzatzea.

Udalbideren lana, kontzientzia sortaraztea ere bada: euskaldunek milaka urte duen kulturaren biziraupena bermatzea, belaunaldiz belaunaldiko kateari lurraldez lurralde eustea. Euskal ondarea, euskera, gure identitatea, gure ondorengoei pasatzearen garrantziaz kontuaraztea. Kateak etena izan duen lekutan, berreskuratzea. Horren kontzientzia sortzea Euskal Herriko zenbait tokitan hil hala biziko lehia da.

Azkenik, Udalak dira Udalbideren arima. Horregatik haien babesa eta interesa ezinbestekoak dira. Nazio eraikuntzan ari gara. Euskaldunok egin ohi dugun bezala, eguneroko lanaren bitartez, gutxinaka, behetik-gora, elkarrenganako errezpetuz. Elkar ezagutuz, elkarri lagunduz, gure herria eraikiz.

Udalbideren EAJren kideak, eguneroko lanari ekiten diotenak, hauek dira: Julian Eizmendi (Azpeitiko Alkatea), Mikel Astelarra (Muxikako alkate ohia), Xabier Alberdi (Markinako Alkatea), Bixente Arozena (Arantzako alkatea), Mª Eugenia Arrizabalaga (Zumaiako alkatea), Ramuntxo Camblong (Angeluko hautetsia eta IBBeko burua), Igor Duñabeitia (Foruako Alkatea) Laura Igantzi (Lesakako zinegotzia), Valeriano Tena (Gasteizeko zinegotzia) José Antonio Torrontegui (Mungiako alkatea) Peio Iparragirre (Aguraingo zinegotzia). Erakundearen zuzendaria, Jose Luis Mendoza nafarra.



Galindez junto al lehendakari Agirre durante la visita de éste a la República Dominicana en 1942

# GALINDEZ, IKURRA

**El día 12 de Marzo de 1956 desapareció Jesús de Galíndez, delegado del Gobierno Vasco en Nueva York y profesor de la Universidad de Columbia. Todos los demócratas del continente americano señalaron como autor del secuestro y asesinato a Trujillo, el dictador de la República Dominicana. Se le consideró el primer desaparecido público de una dictadura.**

Finalizaba Galíndez la carrera de abogado en Madrid, cuando sobrevino la sublevación de Franco. Este hecho hace que al terminar la guerra fuera internado en Francia, de donde se exilió a la República Dominicana y más tarde a los Estados Unidos.

Fue colaborador de periódicos y revistas editados por los vascos en el exilio. En Nueva York se convirtió en cerebro, brazo y pluma de los oprimidos, en manera singular de los dominicanos libres. Por eso pasó a ser enemigo número uno de Trujillo. El 27 de febrero de 1956 en la Universidad de Columbia presentó su tesis doctoral titulada "La Era de Trujillo". El 12 de marzo, el dictador dominicano lo hacía desaparecer. El claustro de la Universidad de Columbia hizo entrega simbólica del título de Doctor a Galíndez ante más de 12.000 personas. Organizó el Gran Desfile Ibero-americano de Nueva York, uniendo para ello a organizaciones representativas de un millón de hombres de habla castellana. Nadie pudo dejar de recordarle en un largo minuto de íntimo recogimiento. Quienes lo secuestraron, se hundieron en la sombra de los crímenes que mancharon sus manos. Y en cambio, el nombre de Galíndez irá creciendo como crecen los símbolos.

Iñaki Anasagasti

**1956ko martxoaren 12an Jesús de Galíndez jeltzalea desagerrarazi zuten. Eusko Jaurlaritzak New Yorken zuen ordezkaria izan zen, eta Columbiako Unibertsitatean jarduten zuen irakasle. Amerikako demokrata guztiek salatu zutenez, Trujillo Dominikar Errepublikako diktadorea izan zen Galíndezen bahiketa eta hilketaren erantzule. Diktadura batek eragindako lehenengo desagertu publikotzat jo zen.**

Galíndez Madrilen zuzenbide karrera amaitzen zegoela gertatu zen Francoren altxamendua. Horren ondorioz, gerra bukatutakoan Frantzian izan zen, eta handik atzerrira joan zen, hasieran Dominikar Errepublikara eta ondoren Estatu Batuetara. Atzerriko euskaldunek argitaratzen zituzten egunkari eta aldizkarietan idazten zuen. New Yorken, zapalduen eta, batik bat, dominikar askeen buru, beso eta luma bilakatu zen. Hori zela eta, Trujilloren lehen etsai bihurtu zen. 1956ko otsailaren 27an "La Era de Trujillo" izeneko dotore-tesia aurkeztu zuen Columbiako Unibertsitatean. Martxoaren 12an desagerrarazi egin zuen diktadore dominikarrak. Columbiako Unibertsitateko klaustroak doktore-titulua eman zion Galíndezi modu sinbolikoan, 12.000 pertsonaren aurrean.

New Yorkeko Desfile Handia antolatu zuen, eta horretarako gaztelaniaz hitz egiten zuten milioi bat pertsona ordezkatzen zuten erakundeak batu zituen. Jende orok gogoratu zuen Galíndez, minutu batez mina barnera bilduz. Bahitu zutenak odolez lohitutako krimenen itzalpean murgildu ziren. Galíndezen izena, ordea, haziz joango da, ikurrak hazten diren bezala.

Iñaki Anasagasti

# "Y" VASCA: UNA INFRAESTRUCTURA FUNDAMENTAL PARA EL DESARROLLO Y LA MODERNIZACIÓN DE EUSKADI



La consejera de Transportes del Gobierno Vasco, Nuria López de Guereñu

**Hay que potenciar el tren – afirma Nuria López de Guereñu, consejera de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco – La sostenibilidad del desarrollo de nuestra sociedad exige modos que sean eficaces, rápidos, confortables y que no derrochen energía ni otros recursos naturales como el espacio. Especialmente en nuestro país que es pequeño. Por eso ahora toca invertir en ferrocarril.**

La gran apuesta de la sociedad vasca por el ferrocarril en el momento presente se llama la Y vasca. Una apuesta que tiene el respaldo de la inmensa mayoría de la ciudadanía vasca y el respaldo de la práctica totalidad del sistema institucional: Comunidad Europea, Gobierno del Estado, Gobierno Vasco, diputaciones forales y ayuntamientos.

La Nueva Red Ferroviaria Vasca, conocida como Y vasca, es una nueva red ferroviaria que unirá las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca, mediante un trazado en "y" que tiene 194 Km. y que estará integrada en la red europea de alta velocidad. La media de los tiempos de duración de los desplazamientos entre las tres ciudades será de 30 minutos.

Se trata de una infraestructura fundamental para el desarrollo y la modernización del país que plantea una alternativa de

**Trena bultzatu beharra dago – esaten du Nuria López de Guereñu Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan sailburuak –. Gure gizartearen garapena iraunkorra izango bada, garraiobide eraginkorrak, bizkorrak, erosoak behar ditugu; ez energia, ez beste baliabide natural batzuk, espazioa esaterako, alferrik galduko ez dutenak. Eta are gutxiago gurean; herri txiki honetan. Horregatik orain trenaren txanda heldu da.**

Gaur egun euskal gizarteak trenbidearen alde egin duen apustuak badu izena: euskal Y-a. Apustu horrek euskal herritarren gehiengoaren babesa du, eta erakunde ia guztiena: Europar Batasunarena, Estatuko Gobernuarena, Eusko Jaurlaritzarena, foru aldundiena eta udalena.

Euskal trenbide-sareak, Euskal Y-ak alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko ditu, 194 km-ko ibilbidean, eta abiadura handiko europar sarean txertatuta egongo da. Hiriburu batetik bestera joateko bidaiek, batez beste, 30 minutu iraungo dute.

Euskadi garatu eta modernizatzeko funtsezko azpiegitura dugu, egun dugun garraio publikoarentzat eta salgaientzat alternatiba erakargarria eta fidagarria eskaintzen duena.

transporte público y de mercancías atractiva y fiable.

La Y vasca, como tren de altas prestaciones, será un sistema de transporte moderno y actual que respeta el medio ambiente y facilita e incrementa el libre movimiento de personas y mercancías entre Euskadi y hacia el exterior. Conectará ágilmente nuestro territorio y nos acercará más rápidamente al resto de Europa.

Sus altas prestaciones permitirán recorrer las distancias en un tiempo muy inferior al ferrocarril convencional, a la vez que respeta el entorno natural y proporciona niveles de seguridad, fiabilidad y confort muy superiores a los de otros medios de transporte existentes.

La realización de la Y vasca ha sido un objetivo largamente perseguido por las instituciones vascas. Finalmente el acuerdo presupuestario establecido entre el PNV y el PSOE para los presupuestos del Estado lo ha hecho posible, resolviendo un bloqueo de años.
Si bien la responsabilidad última de la construcción de la infraestructura es del Estado español, en virtud al Convenio entre las dos administraciones (Ministerio de Fomento y Gobierno Vasco) el Gobierno Vasco será el encargado de construir el tramo guipuzcoano de la red (Angiozar-Irun). Las dos administraciones se disponen a iniciar las obras en un ambiente de cooperación y trabajo en común.

En opinión de Nuria López de Guereñu, " el hecho de que vayamos acometer la infraestructura de forma conjunta las dos administraciones es una manera de acercarnos de la mejor manera posible a que su operatividad sea la que la Unión Europea definió como estratégica para garantizar la competitividad y el empleo: el 2010. Al ser dos las administraciones que acometen los trabajos, estos podrán hacerse de una forma más ágil y será más fácil cumplir los plazos"

"Hay que destacar – añade la consejera del Gobierno Vasco – que esta cooperación es posible gracias a la enorme capacidad de autogobierno que tiene nuestro Concierto Económico. El Gobierno Vasco adelantará la financiación del tramo guipuzcoano, del que asume su construcción, y con posterioridad las cantidades invertidas se descontarán del Cupo".

## Euskadi en red

El objetivo principal de esta nueva línea es situar a Euskadi en las redes de transporte europeas a la vez que se refuerza la vertebración interna. Esto se logra de una doble manera. Por una parte se resuelve el problema de conectar por vía ferroviaria de altas prestaciones las tres capitales (Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián) entre sí, estableciendo de esta manera una oferta de servicios de transporte competitiva con otros medios, principalmente con el automóvil. Por otra parte se crea un nudo ferroviario que permite el acceso al resto de la Red Ferroviaria de Alta Velocidad conectando el País Vasco por Vitoria-Gasteiz hacia la red del Centro, Sur y Oeste peninsular y por Navarra hacia el Valle del Ebro y el Levante y haciendo posible la conexión internacional con la Red Europea de Alta Velocidad a través de Irun, no sólo del

Euskal Y-ak, prestazio handiko trena den heinean, garraio-sistema modernoa da, gaur-gaurkoa, ingurumena errespetatu eta pertsona eta salgaien joan-etorria erraztu eta bultzatzen duena, bai Euskadi barruan, bai Euskaditik kanporantz ere. Gure lurraldea arin-arin lotuko du, eta Europako gainontzeko lekuetara ere azkar asko hurbilduko gaitu.

Prestazio handiak lagun, tren konbentzionalak baino askoz ere denbora gutxiago beharko du bide bera egiteko, eta ingurumena errespetatzeaz gain, beste garraiobideak baino askoz ere seguru, fidagarri eta erosoagoa da.

Euskal Y-a egiteko kontua euskal erakundeok aspaldi lortu nahi genuen helburu bat da. Azkenean, EAJ-k eta PSOEk Estatuko aurrekontuen gainean erdietsitako akordioari esker, lortu dugu azpiegitura egiteko adostasuna, urtetako blokeoa erabat hautsiz.

Azpiegitura eraikitzeko erantzukizuna Espainiako Estatuarena den arren, bi administrazioen arteko (Sustapen Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko) hitzarmena dela medio, Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain sarearen Gipuzkoako tartea (Angiozar–Irun) eraikitzeko ardura. Bi administrazioek, beraz, elkar hartuta ekingo diote trenbidea eraikitzeari.

Nuria López de Guereñuren iritziz, "azpiegitura eraikitzeko lanari elkarlanean ekitea, Europar Batasunak lehiakortasuna eta enplegua bermatzeko estrategikotzat jotako epea (2010) betetzetik ahalik eta hurbilen egoteko erarik onena da. Bi administraziook batera lan eginda, errazagoa izango da lana azkarrago egitea eta, hortaz, epeak betetzea".

"Azpimarratu beharra dago – gehitu du Eusko Jaurlaritzaren sailburuak– lankidetza hori gure Ekonomia Itunak eskaintzen digun autogobernu-maila handiari zor diogula, neurri handi batean. Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako tartea finantzatzeko dirua aurreratu egingo du, eta gero, inbertitutako kopuru hori kupotik kenduko da".

## Euskadi sarean

Trenbide berri honen xede nagusia da, barne egitura sendotzearekin batera, Euskadi Europako garraio-sareetan sartzea. Nola lortuko den hori? Batetik, hiru hiriburuak (Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián) prestazio handiko trenbide baten bidez lotzeko arazoa konponduko da, eta beraz, beste garraio batzuekin alderatuta (batez ere, automobilarekin) lehiakorragoa izango den garraio-zerbitzuak eskaini ahal izango dira.
Bestetik, halako trenbide-begizta bat sortuko da, abiadura handiko gainetiko sarerako sarbidea emango duena, eta Euskadi batekin eta bestearekin lotuko duena; Gasteiztik penintsularen erdi, hego eta mendebaldearekin; Nafarroatik Ebro arroarekin eta Mediterraneo aldearekin; eta Irunen Europako abiadura handiko sarearekin, nazioarteko konexioaren bidez. Nazioarteko konexio horrek Euskadi ez ezik, Espainiako trenbide-sarea bera ere lotuko du Europarekin.

## Bidaiariak eta salgaiak

Nuria López de Guereñuk azaltzen duenez, "egun dugun trenbide-


Euskal Y-ren Kartela

País Vasco, sino de la propia red de ferrocarriles españoles.

## Pasajeros y mercancías

Nuria López de Guereñu explica que "se trata de una red mixta que transportará pasajeros y mercancías a una velocidad superior a la utilizada en la red convencional y que complementa la red actualmente existente. Este tren de altas prestaciones circulará a una velocidad máxima de 230 km/h para los pasajeros y a 90km/h en el caso de las mercancías".

Esta nueva infraestructura de transporte estará compuesta por vías férreas, plataformas intermodales y por los servicios necesarios para el funcionamiento de la misma.

La Nueva Red Ferroviaria del País Vasco se va a construir de acuerdo con el trazado previsto, dividida en 28 tramos que transcurren en los tres Territorios Históricos de la CAPV. Los principales ejes de la red, Vitoria-Bilbao y la conexión con Irún se unen en un "intercambiador" (Elorrio-Angiozar-Aramaio). Además, va a existir una estación importante en cada una de las capitales y se ha previsto la existencia de estaciones intermodales (pasajeros y mercancías) y las necesarias infraestructuras logísticas para su buen funcionamiento.

En cuanto al ancho de la red, se establece el ancho UIC (ancho internacional) para todo el recorrido, resolviéndose así un histórico problema de incompatibilidad de anchos con la red europea.

## Desarrollo social y económico

La implantación de esta nueva red de ferrocarril entre las capitales vascas supondrá un ahorro global de tiempo no sólo para los propios viajeros sino, también, para quines transiten por carretera, que se verán en buena medida descongestionadas.

En la medida en que el uso de los viajeros se trasvase hacia el ferrocarril aumenta la seguridad víal y se reduce la siniestralidad viaria. El ferrocarril supone una apuesta por un modo de transporte más seguro.
Igualmente supone un avance hacia unas formas de movilidad

sarea osatu, eta bidaiariak eta salgaiak tren konbentzionalak baino azkarrago garraiatzen dituen sare mistoa dugu. Prestazio handiko tren honek gehienez ere orduko 230 km-ko abiaduran eramango ditu bidaiariak, eta orduko 90 km-tan salgaiak".

Garraio-azpiegitura berria burdinbideek, intermodalitaterako guneek eta funtzionamendurako beharrezko diren zerbitzuek osatuko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoak hartzen dituen trenbide-sare berria eraikitzeko, ibilbidean 28 bidegune bereizi dira. Sareko ardatz nagusiek, hau da, Vitoria-Bilbao ardatzak eta Irungo konexioak, Elorrio–Angiozar–Aramaio artean eratuko den nolabaiteko "aldagunean" elkartuko dira. Gainera, hiriburu bakoitzean geltoki bat eraikiko da, eta geltoki intermodalak ere jartzeko asmoa dago (bidaiari nahiz salgaientzat), bai eta behar bezala funtziona dezan behar diren azpiegitura logistikakoak ere.

Sarearen zabalerari dagokionean, ibilbide osoan UIC zabalera (nazioarteko zabalera) izango du trenbide-sare berriak, eta, hartara, zabalera desberdina dela-eta Europako sarearekiko betidanik izan dugun bateraezintasun hori konponduta geratuko da.

## Garapen soziala eta ekonomikoa

Hiriburuen artean trenbide-sare berri hau jarrita, denbora asko aurreztuko dugu guztiok: treneko bidaiariek, jakina, baina baita errepideko bidaiariek ere, errepideetan askoz ere ibilgailu gutxiago ibiliko baita joan-etorrian.

Bidaiariek trena erabiltzen duten neurrian, errepideetako segurtasuna hobetu egiten da, eta istripu-kopurua gutxitu. Trenbidearen alde apustu egitea, garraiobide seguruaren alde egitea da.

Seguruagoa ez ezik, modernoagoa eta erosoagoa. Hiriburu batetik bestera, Iruñerantz eta Baionarantz, edo-eta Euskal Herritik kanpora joan beharra dutenek, bidaiatzeko era eroso, azkar eta seguruagoa baliatu ahal izango dute.

más moderna y más confortable. Quines se tengan que desplazar entre las tres capitales, hacia Baiona e Iruñea, y hacia el exterior de Euskadi dispondrán de un nuevo concepto de viajar en un medio cómodo, rápido y seguro.

De esta manera los ciudadanos verán su capacidad de movilidad reforzada con un nuevo modo de transporte cohesionador del territorio y que al mismo tiempo nos acerca a Europa y a la zona oriental de la Península, con las posibilidades y oportunidades de ocio, formación o laborales que ello implica.

Tanto por las nuevas oportunidades de negocio para las empresas como por la reducción de los gastos asociados al transporte la Nueva Red Ferroviaria supone un fuerte impulso a la economía vasca. Se mejoran las conexiones y se favorece un nuevo corredor rápido y seguro para el transporte de personas y bienes, lo que supondrá un incremento de las exportaciones, especialmente en el sector servicios.
La traducción en términos económicos de los beneficios de la infraestructura en ahorros de tiempo, consumo de combustible, desgaste de vehículos, accidentes y emisiones contaminantes generarán un beneficio anual de 420 millones de euros en el entorno del 2010-2012.
La Y vasca es, también desde el punto de vista económico, una inversión clave para consolidar una sociedad de economía avanzada y unas formas de sociedad del bienestar adaptadas al siglo XXI.

## Desarrollo medio-ambiental

La Y vasca es un sistema de transporte público ecológico y respetuoso con el entorno natural, y por sus altas prestaciones, uno de los más sostenibles.
La Y vasca ahorrará 630 toneladas diarias de emisión de $CO_2$, y eliminara entre un 60% y un 80% de otros contaminantes atmosféricos ( monóxido de carbono, dióxido de azufre y otras partículas orgánicas), respecto al mismo transporte que se realiza por carretera.
Permitirá reducir los niveles medios de ruido respecto al transporte actual aéreo y por carretera y reducirá apreciablemente el volumen total de viajeros que se desplazan hoy por carretera, con la consiguiente reducción de congestión y contaminación que esto supone.
Supone, igualmente un importante ahorro energético respecto a otros medio de transportes actuales ya que ahorrará diariamente unos 132.500 litros de combustible respecto al utilizado por carretera. En este mismo sentido, se puede mencionar que se calcula en más de 22.500 vehículos la reducción de tráfico que se podría experimentar en nuestras carretera, de los cuales 1.000 serían camiones remolques.

## Equilibrio

Aunque la red de alta velocidad favorecerá una mejor conexión entre las capitales, vertebrando el territorio entre sí y mejorando sustancialmente las comunicaciones con el exterior, a fin de que no se produzcan situaciones no deseadas de desequilibrio regional, el Gobierno Vasco ha previsto todo un abanico de inversiones para completar y mejorar el actual entramado del transporte público en la CAPV.

Horrela, bada, herritarrek mugitzeko aukera gehiago izango dituzte, garraiobide berri honekin; arestian esan bezala, lurraldea kohesionatu, lotu, eta gainera, Europarantz eta penintsularen ekialderantz hurbiltzen gaituena, horrek aisia, prestakuntza eta lan arloan eskaintzen dituen aukerekin.

Enpresentzako negozio-aukera berriak sortu eta garraioari lotutako gastuak gutxitu egingo dituenez, trenbide-sare berriak bultzada ederra emango dio euskal ekonomiari. Konexioak hobetu egingo dira, eta pertsona eta ondasunen garraiorako korridore berri bat sortuko da, bizkorra eta segurua, eta horrekin berekin ekarriko du esportazioak igotzea, batez ere zerbitzuen arloan.

Azpiegitura berriaren onurak dirutan neurtuz gero, hau da, aurreztuko den denbora, erregaien kontsumoa, ibilgailuen iraupena, istripuak eta kutsadura kontuan izaten baditugu, 2010-2012 aldera urtean 420 milioi inguru aurreztea espero da.
Euskal Y-a, ikuspuntu ekonomikotik ere, oso inbertsio garrantzitsua da ekonomia aurreratua eta XXI. mendeko ongizate-maila izan nahi duen gizarte bat sendotzeko.

## Garapena eta ingurumena

Euskal Y-a garraio-sistema publiko ekologikoa da, inguru naturala errespetatzen duena, eta eskaintzen dituen prestazio handiengatik, denik eta iraunkorrenetakoa.
Euskal Y-arekin, garraio-lan bera errepidez eginda baino egunean 630 tona $CO_2$ gutxiago isuriko dira, eta beste poluitzaile batzuk (karbono monoxidoa, sufre-dioxidoa eta beste partikula organiko batzuk) % 60-80ren bueltan gutxituko dira. Batez besteko zarata-maila ere aireko eta errepideko garraioak eragindakoa baino txikiagoa izango bide da, eta gaur egun errepidez mugitzen diren bidaiarien kopurua nabarmen jaitsiko denez, horrek ondorio nabarmena izango du auto-pilaketetan eta kutsaduran.
Arestian esan bezala, egungo beste garraiobide batzuk eskatzen dutena baino energia gutxiago behar du; errepideko garraioarekin alderatuz, egunean, gutxi gorabehera 132.500 litro erregai aurreztuko du. Ildo horretatik, komeni da aipatzea, gure errepideetan dezente ibilgailu gutxiago ibiltzea espero dela, 22.500 inguru; eta horietatik mila, kamioi atoidunak.

## Oreka

Nahiz eta abiadura handiko sareak hiriburuen arteko konexioa hobetuko duen, eta, alde horretatik lurraldea egituratu eta barruko eta kanpoko komunikazioak nabarmen erraztuko dituen, eskualdeen artean desorekarik sor ez dadin, Eusko Jaurlaritzak hainbat eta hainbat inbertsio egiteko asmoa du, Euskal Autonomia Erkidegoan lehen dugun garraio publikoaren sarea osatu eta hobetzeko.

# LA CAUSA DEL PUEBLO VASCO (50. URTEURRENA)




F. Javier de Landaburuk 1956. urtean argitaratutako liburua

**Durante los años de la II Guerra Mundial el Gobierno Vasco y los abertzales en el exilio se desvivieron en la lucha por la libertad y la democracia, que tanto pregonaban las grandes potencias. Sin embargo no obtuvieron más correspondencia que la deslealtad.**

En esta situación, a los abertzales les dolió más esta actitud que la pérdida de la relación amistosa con dichas potencias. Sin embargo huyeron de la desesperación y optaron por proseguir trabajando por el futuro de Euskadi. Para ello, entre otras acciones, el Lehendakari Aguirre organizó el Congreso Mundial en París (1956).Pero las nuevas generaciones vascas habían perdido la fe en la democracia. Francisco Landaburu, correspondiendo a los propios planteamientos de la juventud, publicó "La Causa del Pueblo Vasco".

Han transcurrido 50 años, y aún hoy perviven los temas de aquellos dolorosos debates sobre paz, derechos humanos, independencia, soberanía, relaciones con España, futuro de Europa, etc.

Para quien desee conocer la ideología de Partido Nacionalista Vasco resulta imprescindible el libro de Landaburu. Todavía no se ha publicado mejor ensayo sobre el Nacionalismo Vasco.

Alderdikide, Zorionak por tu opción de leer un libro de tanta actualidad aún hoy.

Josu Legarreta

**II. Mundu Gerran 1940tik 1940ra atzerriratuta bizi ziren Eusko Jaurlaritzak eta hamaika euskaldunek ahaleginak eta bat egin zituzten demokraziaren eta askatasunaren alde, itxuraz behintzat, zeuden nazio ahaltsuen alde borrokatuz. Jokabideok, ordea, eskertxarra baino besterik ez zuten hartu.**

Egoera etsi honetan, abertzaleontzat nazioon adiskidetasuna galtzea baino mingarriagoa izan zen bere desleialtasuna. Baina etsipenean erori beharrean, aurrera egin zuten. Honetarako, besteak beste, 1956an Aguirre Lehendakariak Mundu Biltzarra antolatu zuen Parisen.

Baina Euskal Herriko belaunaldi gaztea kezkatuta bizi zen; demokraziarekiko sinismena galdua zuen eta jokabide berriak eskatzen zituen. Francisco Landaburuk, kezka hauei erantzun nahiean, "La causa del Pueblo Vasco" liburua argitaratu zuen.

50 urte igaro ondoren, garai hartako eztabaida ideologiko askok oraindik gaur ere bizirik eta mingarri diraute, betiko galderekin: pakeaz, giza eskubideez, Euskal Herriaren independentziaz, burujabetzaz, Espainiarekiko harremanez, Europaren etorkizunaz, eta abar.

Euzko Alderdi Jeltzalearen ideologia ezagutu nahi duenak liburu hau nahita ezkoa du. Gaur arte ez da sortu hain sakon gaiok plantetzen dituen libururik.

Zorionak, alderdikide, irakurtzeko erabakia hartzen baduzu.

Josu Legarreta

# TRIBUNA GALEUSCAT:
## PARA PENSAR OTRO FUTURO



Francisco Jorquera, Juan Mari Atutxa y Antoni Vives, secretario, presidente y director de la Tribuna Galeuscat respectivamente

**El pasado 15 de febrero se presentó en Madrid la asociación Tribuna Galeuscat, creada por Euzko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV), Convergencia i Unió (CiU) y Bloque Nacionalista Galego (BNG) con el fin de potenciar un foro de diálogo desde el que promocionar conjuntamente una nueva cultura política que haga posible el reconocimiento de la realidad plurinacional del Estado español.**

La Tribuna Galeuscat nace como una "alianza alternativa al modelo de Estado imperante" y tiene por objetivo "ofrecer una nueva visión de cómo se debe articular el Estado español". Así lo asegura su presidente, Juan Mª Atutxa, quien además considera que "la configuración de tribunas de esta naturaleza, donde se unen tres naciones, es, de alguna manera, ejemplarizante para quienes apuestan por la violencia para defender sus objetivos".
En el acto de presentación Juan Mª Atutxa matizó además que "no venimos a plantear qué hay de lo mío, sino qué hay de lo nuestro" e indicó que "sería osado e iluso pensar que está tribuna vaya a resolver el problema vasco, pero es evidente que contribuimos a la paz".

Junto a Juan Mª Atutxa, Antoni Vives (CiU) actuará como director y Francisco Jorquera (BNG) ocupará la secretaría de la nueva asociación.

**Joan den otsailaren 15ean Galeuscat Tribuna elkartea aurkeztu zen Madrilen. Elkarte hori Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ), Convergencia i Uniók (CiU) eta Bloque Nacionalista Galegok (BNG) sortu zuten, Estatu espainiarraren nazio anitzeko errealitatea aintzatestea bideratuko duen kultura politiko berria elkarrekin sustatzeko elkarrizketarako bilgunea bultzatze aldera.**

Galeuscat Tribuna "gaur egun nagusi den Estatu irudiaren alternatiba izateko" sortu zen, eta ondokoa da elkartearen helburua: "Estatu espainiarra egituratzeko ikuspegi berria eskaintzea". Hori adierazi du elkartearen lehendakaria den Juan Mª Atutxak, eta horrezaz gainera esan du "mota horretako tribunak eratzea, zeinetan hiru nazio biltzen baitira, eredugarria da, nolabait, beren helburuak defendatzeko indarkeria erabiltzen dutenentzat".
Halaber, Juan Mª Atutxak aurkezpen-ekitaldian adierazi zuenez "gure xedea ez da norberarena soilik eskatzea, gurea, hirurona, eskatzea baizik", eta esan zuen "ausartegia eta, are, inozoegia izango litzatekeela tribuna honek Euskal Herriaren arazoa konponduko duela pentsatzea, baina argi dago bakea ekartzen laguntzen duena".
Juan Mª Atutxarekin batera, Antoni Vivesek (CiU) zuzendari jardungo du eta Francisco Jorquera (BNG) elkarte berriaren idazkaria izango da.



Artur Mas eta Josu Jon Imaz Tribuna Galeuscat-en aurkezpenean izan ziren

La presentación de Tribuna Galeuscat se produjo unos días después de que CiU, EAJ-PNV y BNG, confirmaran en un acto político, también en Madrid, su compromiso con la instauración de un Estado plurinacional que reconozca las naciones catalana, gallega y vasca, en un momento de "encrucijada" por el debate estatutario. En este encuentro, además del presidente y la secretaria del Euzkadi Buru Batzar de EAJ-PNV, Josu Jon Imaz y Josune Ariztondo, respectivamente, también tomaron parte el secretario general de Convergencia Democrática de Catalunya, Artur Mas; el secretario general de Unió Democrática de Catalunya, Josep Maria Pelegrí; y el portavoz nacional del Bloque Nacionalista Gallego, Anxo Quintana.

Esta alianza entre las fuerzas nacionalistas vasca, gallega y catalana viene de lejos. Galeuscat sitúa sus antecedentes en la firma de la Triple Alianza en 1923, renovada después en 1933 con el Pacto de Compostela, y en 1998, con la Declaración de Barcelona. La última declaración política e institucional de Madrid ha supuesto la reafirmación de unos objetivos y un plan de acción para la "socialización" del "nacionalismo positivo" que representan EAJ-PNV, CiU y BNG.

## Una contribución europea

La asociación Tribuna Galeuscat pretende, pues, estar presente en la vida social y política de Galiza, Euskadi y Catalunya, del Estado y de Europa y asentar una cultura del diálogo. Cuando desde Galiza, Catalunya o Euskadi planteamos una modificación de nuestro actual marco jurídico lo hacemos desde la defensa de un sistema de organización política que consideramos más eficiente que el centralismo jacobino en el que se inspira la concepción actualmente dominante de lo que es España.

Por eso, desde la Tribuna Galeuscat se defenderá que las estructuras en red son más eficientes y creativas y capaces de generar solidaridad, justicia social y riqueza que las estructuras radiales.

Para contribuir a estos fines Tribuna Galeuscat quiere promover debates en los medios intelectuales y de comunicación españoles y europeos; intercambiar experiencias y conocimientos con operadores y actores políticos del Estado español y del resto de Europa; impulsar el diálogo entre política y sociedad civil desde esta nueva perspectiva y establecer contactos con este mismo objetivo con fundaciones y organizaciones interesadas en la cuestión.

CiUk, EAJk eta BNGk Madrilgo ekitaldi politikoan Katalunia, Galizia eta Euskal Herria nazio gisa aintzatetsiko dituen nazio anitzeko Estatua eraikitzeko konpromisoa berretsi eta egun batzuk geroago aurkeztu zuten Galeuscat Tribuna, estatutuen gaineko eztabaida dela eta “bidegurutzean” gauden une honetan. Topaketa horretan, Eusko Alderdi Jeltzalearen Euskadi Buru Batzarraren lehendakari Josu Jon Imaz eta idazkari Josune Ariztondo izan ziren, eta bai Convergencia Democrática de Catalunyaren idazkari nagusi Artur Mas, Unió Democrática de Catalunyaren idazkari nagusi Josep Maria Pelegrí eta Bloque Nacionalista Galegoren bozeramaile nazional Anxo Quintana.

Euskal Herri, Galizia eta Kataluniako indar abertzaleen arteko itun hau aspaldikoa da. Galeuscaten aurrekariak 1923. urtean Itun Hirukoitza sinatu zenekoak dira; ondoren, itun hori 1933. urtean berritu zen, Compostelako Itunarekin, eta 1998an, hiru alderdiek Bartzelonako Adierazpena sinatu zuten. Madrilgo azken adierazpen politiko eta instituzionalak EAJk, CiUk eta BNGk ordezkatzen duten "abertzaletasun positiboa gizarteratzeko" helburuak eta ekintza-plana berrestea ekarri du.

## Europa, jomuga

Hainbestez, Galeuscat Tribuna elkartearen xedea Galizia, Euskadi eta Kataluniaren, eta are, Estatuaren eta Europaren bizitza sozial eta politikoan jardutea da, eta elkarrizketarako kultura indartzea.

Galizia, Katalunia eta Euskadiko hiru alderdiok gaur daukagun eremu juridikoa aldaraztea planteatzen dugunean, egun Espainia ulertzeko ideiaren ondoriozko zentralismo jakobinoa baino modernoagoa eta eraginkorragoa den antolaketa politikoaren sistemaren defentsa dugu abiaburu.

Xede hori lortze aldera, Galeuscat Tribunak ondoko hauek eragin nahi ditu: Espainiako eta Europako komunikabide eta esparru intelektualetan eztabaidak sustatzea; Estatu espainiarreko eta Europako gainerako herrialdeetako eragile eta ekintzaile politikoekin esperientziak eta ezaguerak elkartrukatzea; politikarien eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa bultzatzea,ikuspegi berria abiaburutzat hartuz; eta azkenik, helburu bera duten eta gai hau jorratzeko interesa duten fundazio eta antolakundeekin harremanak izatea.

# ALDERDIA
# PERTSONEN ZERBITZURA




Klandestinitate garaiko andereñoek EAJk eskainitako laguntasuna eskertu zuten Sabin Etxean

**Es bien sabido que el de las pensiones es uno de esos grandes temas en los que el Estado, incumpliendo una de las Leyes orgánicas por él mismo aprobadas hace lo del perro del hortelano. Ni hacer, ni dejar hacer. La gestión y administración de las prestaciones económicas del sistema de la Seguridad Social, está asignada en el Estatuto de Gernika a la CAPV pero los gobiernos sucesivos del Estado se niegan a transferir esta competencia.**

Mientras, en Euskadi, tenemos colectivos que vienen sufriendo de una forma especialmente gravosa las consecuencias de la gestión estatal de las pensiones, por lo que desde el partido, en colaboración con estos colectivos, nos propusimos hacernos eco de sus demandas y poner nuestra estructura al servicio de sus reivindicaciones.

Lo hemos hecho desde un doble punto de vista: 1.- denunciar la hipocresía de los principales partidos en el Estado por liderar la defensa del actual marco autonómico a la vez de incumplirlo sistemáticamente. 2.- denunciar que sea el propio Estado, con su gestión de la Seguridad Social, el que genera en la sociedad vasca situaciones de precariedad en colectivos que han contribuido durante toda su vida al sistema de Seguridad Social y merecen otro trato a la hora de su retiro

**Gauza jakina da pentsioen arloan ere, beste gai batzuetan egiten duen bezalaxe, Estatuak ez duela ez egurra ebakitzen eta ezta aizkora ematen ere, nahiz eta berak onetsita duen Lege Organikoa izan. Ez dio inori ezer egiten uzten eta berak ez du ezer egiten. Gizarte Segurantzako sistemako prestazio ekonomikoen kudeaketa eta administrazioa EAEren eskuetan dago Gernikako Estatutuan baina Estatuko gobernuek uko egin diote eskumen horren transferentzia egiteari.**

Bien bitartean Euskadin berariaz Estatuaren kudeaketaren ondorio txarrak nabarmen pairatzen dituzten taldeak ditugu eta, horregatik, Alderdiak, talde horiekin lankidetzan, horien eskariei jaramon egitea eta gure egitura horien erreibindikazioen zerbitzura jartzea erabaki zuen. Hori egiteko ikuspegia bikoitza izan da: 1.- Estatuko alderdi nagusien hipokresia salatzea, hau da, egungo marko autonomikoaren defentsaren aitzindari direlako baina, aldi berean, era sistematikoan ez dutelako betetzen. 2.- Estatua bera salatzea, Gizarte Segurantzaren bere kudeaketarekin, euskal gizartean bizitza osoan Gizarte Segurantzaren sistemari lagundu arren, gaur egun egoera oso prekarioan dauden taldeak eragiten dituelako. Batzuetan kotizazio gabeko prestazioak baino baxuagoak diren pentsioak jasoz. Hori benetan da bidegabekeria interesatuentzat eurentzat eta ia beti emakumeak izaten dira hauek.


Gema González de Txabarri y Emilio Olabarria responsables de sacar adelante estas iniciativas sociales

Así, durante los últimos meses, hemos puesto en marcha, de la mano de los colectivos afectados, una serie de iniciativas que debido a las exiguas mayorías en las cámaras centrales y a la dificultad de oponerse a las mismas desde un discurso “progresista” han tenido un éxito considerable.

Comenzamos con el colectivo de las viudas. En Euskadi hay un colectivo de 120.000 viudas con una pensión media de 430 al mes. Es uno de esos casos en los que es el propio sistema el que genera situaciones de pobreza. Para este colectivo conseguimos que el Congreso de los Diputados aprobara una disposición para que se vaya paulatinamente acercando la cuantía de la pensión mínima de viudedad al Salario Mínimo Interprofesional.

El siguiente colectivo fue el de los prejubilados, a través de su Federación Vasca. Después de iniciativas y negociaciones varias conseguimos que a los prejubilados forzosos se les recalcule su pensión de forma que, si tuvieran 35 años cotizados a la SS, cobren a la edad de jubilación lo que les hubiera correspondido si no hubieran sufrido aquella situación.

Por fín hace solo unas semanas defendimos y conseguimos que se aprobara una disposición sobre un colectivo también de mujeres, especial por lo que ha supuesto en la historia de nuestro país y de nuestra lengua, como es el colectivo de las primeras andereños de las Ikastolas. Con ellas hemos dado cúlmen a un propósito en el que llevamos varios años. Así, acabamos de lograr que el Congreso de los Diputados, apruebe por unanimidad que se les den por cotizados aquellos años de la época franquista que tuvieron que trabajar en la clandestinidad y puedan disfrutar ahora de una jubilación en justicia.

Para todas estas personas estas acciones han sido un auténtico logro. Nosotros hemos visto cumplida la filosofía del partido, aquella de poner el partido al servicio de las personas. Nos queda una sensación de deber cumplido.

Gema Gonzalez de Txabarri Miranda
Responsable de Asuntos Sociales del EBB

Ondorioz, azken hilabete hauetan talde ukitu horien eskutik arrakasta handia lortu duten ekimen batzuk jarri ditugu abian, eta arrakasta izan dute batez ere egun Espainiako ganberetan indarrek duten erlazioagatik eta ezkerreko alderdientzat oso zaila delako benetan gizarte justiziakoak diren erreibindikazioen aurka egitea.

Hasi, emakume alargunen taldearekin hasi ginen. Euskadin 120.000 emakume alargun daude eta horien hileroko batez besteko pentsioa 430 eurotakoa da. Emakume alargunen kasuan lehen aipatu dugun hori gertatzen da, hau da, sistemak berak sortarazten dituela prekarietate eta txirotasun egoerak. Bada, lortu genuen Diputatuen Kongresuak xedapen bat onestea eta horretan estatuaren konpromisoa agertzen da jasota, hau da, apurka-apurka alargunen gutxieneko pentsioaren zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldatara hurbiltzekoa, izenak berak adierazten duen bezala bizitzeko behar den gutxieneko soldata dena.

Bigarren taldea aurre-erretiratuena izan zen, kasu honetan horiekiko harremanak Euskal Federazioaren bidez burututa. Ekimen eta negoziazio batzuen ostean lortu genuen derrigorrezko aurre-erretiratuen pentsioak berriz kalkulatzea baldin eta Gizarte Segurantzan 35 urte badituzte kotizaturik.

Eta duela aste batzuk guretzat benetan berezia izan den beste gai bat defendatu eta Kongresuak onartzea lortu dugu, kasu honetan ere emakumeen talde bati dagokiona. Hasierako Ikastoletan eskolak eman zituzten lehenengo andereñoei buruzko ebazpena onestea lortu dugu. Beraz, lortu berria dugu Diputatuen Kongresuak aho batez onartzea andereñoek klandestinitatean lan egin zituzten Francoren diktadurako urteak Gizarte Segurantzan kotizatutzat jotzea, izaera klandestino horren ondorioz eurentzat ezinezkoa zelako kotizatzea eta gaur Estatuak berriz kalkulatu behar ditu horien pentsioak, benetan lan egin zituzten urteen arabera.

Pertsona horientzat guztientzat ekintza hauek benetako lorpenak izan dira. Guk, gure aldetik, Alderdiaren filosofia bete dela ikusi dugu eta hori gure Alderdia pertsonen zerbitzura jartzea baino ez da. Gure lana betetzea baino ez da izan.

Gema Gonzalez de Txabarri Miranda
EBBko Gizarte Gaien arduraduna


1932 - 2006
75. ABERRI EGUNA
Apirilak 16 Abril
12:00 etan
JUAN JOSE IBARRETXE
JOSU JON IMAZ
Plaza Barria
BILBAO